

#SOSPRESOAKCOVID-19



COVID 19aren KUDEAKETA IRUÑEKO ESPETXEAN

DATUEN EGUNERAKETA 2021eko EKAINAREN 30ean

1. SARRERA

2020ko apirilaren 22an abian jarri zen **#SOSPRESOAKCOVID-19** izeneko dinamika (gaur egun Salhaketa Nafarroak, Etxeratek eta Sare Herritarrak osatua). Egun hartatik hasita, hainbat aldiz plazaratu dugu Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak (EIN) zer kudeaketa eskasa egin duen Covid-19aren gaiaz, Iruñeko espetxeko egoerari dagokionez nahiz preso nafarrei edo Nafarroan errotuta


#SOSPRESOAKCOVID19

#SOSPRESOAKCOVID-19

daudenei dagokienez; horrekin batera, behin baino gehiagotan eskatu dugu presoek eskubideak errespetatzen dituzten neurriak har daitezela osasun krisi honi aurre egiteko orduan.

Eskakizun horiek kalera atera ditugu ekitaldiak eta elkarretaratzeak eginez:

- **2020ko maiatzaren 19an, aldi bereko elkarretaratzeak egin genituen Iruñeko espetxearen aurrean, Nafarroako Parlamentuaren aurrean, Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzaren aurrean eta Foru Diputazioaren aurrean.** Helburua zen, batetik, ikusaraztea Estatuko Administrazioak eta Nafarroakoak Iruñeko espetxearen gainean duten erantzukizuna, eta, bestetik, **“deseskalatze plana”** aurkeztea, gure ustez beharrezkoa zena presoek eskubideen errespetua bermatzeko kudeaketaren fase hartan, ikusita EINEk ez zuela hartu horretarako behar bezalako neuririk.
- **2020ko uztailaren 4an, beste bilkura bat egin genuen Iruñeko Gaztelu plazan,** berriz salatzeke presoek eta haien senitartekoen eskubideak urratzen ari zirela osasun krisia kudeatzeko moduarekin. Era berean, aditzera eman genuen eskubide urraketa hori are larriagoa zela zigorra erroturik dauden tokietatik urrun betetzen ari diren presoentzat (184 preso, Nafarroaren kasuan). Horregatik, **eskatu genuen lehenbailehen bukatzeko espetxeetan gertatzen ari zen (eta den) eskubide urraketa, eta familiagatik edo sozialki erroturik dauden tokietako espetxeetara eramateko hala eskatzen zuten preso guztiak.**
- **2020ko urriaren 15ean gosari bat egin genuen hedabideekin,** txosten bat aurkezteko, haren bidez ikusarazi eta salatzeke, beste behin ere, **“normaltasun berria”** delakoa iritsita ere espetxeetako kudeaketa ezin txarragoa zela eta eskubideak urratzen segitzen zutela **bai Iruñeko espetxean bai Nafarroako edo Nafarroan erroturik dauden 184 presoak zigorra betetzen ari diren urrutiko espetxeetan.**
- **2020ko azaroaren 7an, mahai-inguru bat antolatu genuen zuzenean hitz egiteko espetxeetan Covid-19aren krisian gertatu den egoeraz.** Bertan parte hartu zuten Iruñeko kartzelako preso batek, Zaballako kartzelako preso batek eta Aranjuezeko kartzelako preso baten gertuko batek.

#SOSPRESOAKCOVID-19

- **2020ko azaroaren 23an, idatzi bat erregistratu genuen, Nafarroako Gobernuko lehendakariari zuzendua**, foru araudian aldaketa bat egiteko eskatuz, Foru Komunitatean sartu eta bertatik ateratzeko **justifikatutako arrazoiaren artean** (itxiera perimetrala zegoenean) **espetxeetara joatea** ere sar zezaten, **Nafarroatik kanpoko espetxeetan** preso dauden familiartekoak eta/edo gertukoak bisitatu ahal izateko.
- **2021eko urtarrilaren 27an, Nafarroako Parlamentuan aurkeztu genuen 2020ko urriaren egindako txostena**. Parlamentuko agerraldirako, **informazioa eguneratu** genuen eta Parlamentuari eskatu genion gure eskakizunak bere egiteko.
- **2021eko otsailaren 19an**, preso guztien eskubideen aldeko elkarretaratze bat deitu genuen, eta presoen bisitak berriz baimentzeko eskatu.

Otsailetik hona, Iruñeko espetxeko egoerak kezagarria izaten jarraitu du, eta horregatik aurkezten dugu orain gure txostena eguneratuta, egungo errealitatearen berri emateko asmoz.

2. EGUNGO EGOERA IRUÑEKO KARTZELAN

EINaren datu ofizialen arabera, 2021eko martxoan Iruñeko espetxean 308 preso zeuden (283 gizon eta 25 emakume).

Txostenean aipatzen genituen gai nabarmenei dagokienez, hau da oraingo egoera:

- Espetxetik ateratzeko baimenak:

Bertan behera gelditu ziren Covid-19aren kudeaketaren hasieratik bertatik eta 2020ko maiatzaren erdialdean berrezarri zituzten. Baimenak berrezartzeko baldintza zen espetxera itzultzean presoak 14 eguneko bakartze aldia egitea.

2020ko azaroan baimenak berriz gelditu ziren bertan behera, urte bereko abenduaren 1era arte.

2021eko otsailaren 2an atzera ere bertan behera utzi zituzten, EINak espetxeak blindatzeko gomendio berriak eman ondoren. Hasiera batean 15 egun iraun behar zuen egoera hura martxoaren bukaerara arte luzatu zen, eta orduan ateratzeko baimenak eman ziren, baina 10

#SOSPRESOAKCOVID-19

eguneko bakartze aldiak betetzekotan. Maiatzeko lehen astean aldi hori 16 egunera luzatu zen, ekainaren 12an 10 egunekoa ezarri, eta duela bi astetik hona 5 egunekoa da .

Baimenetatik bueltan nahitaez egin beharreko bakartze aldi horiek, hasieratik eta orain ere, ez dira osasun guneetan egiten, preso sartu berrien moduluko ziegetan baizik. Bakartze aldi osoan presoak bakarrik dago, edo beste preso batekin, ziegan bertan egiten dituzte otorduak eta ezin dute bisitarik jaso ezta jarduerarik egin ere. Egunean 2 orduz ateratzen dira patiora, besterik ez.

Esan beharra dago bakartzeko betebeharrak hau ezartzen zaiela baimenetik itzultzen diren guztiei eta edozein diligentziatarako espetxetik atera behar izan dutenei (osasun azterketa, epaitegietara joatea ...), bai eta preso sartu berriei ere.

- Komunikazioak:

Iruñeko kartzelan aurrez aurre egiten diren komunikazio bakarrak kristal tartekoak dira. Komunikazio horiek pandemiaren hasieratik utzi zituzten bertan behera, 2020ko maiatzaren erdialdera arte.

Data horretatik aurrera berriz ezarri zituzten, baina oso murriztuta, eta EInak 2021eko otsailaren 2ko gomendioen ondorioz berriz kendu ziren. Egoera hura 15 egunerako ezarri bazen ere hasiera batean, martxoaren 11ra arte ez ziren berriz ezarri komunikazio horiek.

Orain kristal tarteko komunikazioak besterik ez da egiten.

Bisean biseko komunikazioak, berriz, pandemiaren hasieratik 2020ko uztaile bitarte gelditu ziren bertan behera. Baina urte horretako abuztu erdialdean berriz kendu zituzten eta oraindik ez dituzte berrezarri.

Nabarmendu nahi dugu, halere, EInaren esku dauden espetxeen %66an bisean biseko komunikazioak egiten direla orain.

#SOSPRESOAKCOVID-19

Horretaz aparte, bideo-deiak ez dira mantendu presoen eta familiartekoen edo kanpoko gertukoaren arteko komunikaziorako bitarteko gisa. Orain, bideo-deiak egin ditzaketen bakarrak dira kristal tarteko bisitarik jasotzen ez dutenak, astean behin edo hamabostean behin.

- Espetxe barruko jarduerak eta tailerrak

Pandemiaren hasieratik, maiz ezarri da debekua espetxetik kanpoko pertsonak sartzeko, jarduerak eta tailerrak egiteko.

Debeku hori erabatekoa izan zen pandemiaren hasieratik maiatzaren erdialdera arte. Ondoren, behin baino gehiagotan eten dira. EInak 2021eko otsailaren 2an eman zituen gomendioek kanpoko profesionalen sarrera murriztea ere ekarri zuten eta, horrenbestez, jarduerak eta tailerrak bertan behera gelditzea. Egoera hori 15 egunerako planteatu bazen ere, martxoaren 11ra arte luzatu zen, egun horretan baimendu baitzen haiek sartzea.

Apirilaren erdialdean berriz mugatu ziren komunikazioak mintzalekuetara. Maiatzaren erdialdean eman zuten berriz sartzeko baimena.

- Txertaketa

Iruñeko kartzelan 2021eko maiatzaren 18ko arratsaldean egin zen txertaketa. Nafarroako Gobernuak osasun profesionalak arduratu ziren txertoak jartzeaz.

Presoei ez zaie aurrez jakinarazi txertaketa egin behar zenik, ez eta zer txerto jarriko zitzaien ere, eta egunean bertan jakin zuten, modulu bakar batean izan ezik, bezperan abisatu behar izan baitzuten.

Txertoaz eta nahigabeko ondorioei buruz eman zen informazioa oso urria izan zen, eta eskatuz gero baizik ez zuten osatzen.

Txertatu aurretik ez zaie presoei argibiderik eman txertatzeak edo ez txertatzeak izan ditzakeen ondorioei buruz, aurrerago jarduerak egiteko, bisean bisekoak izateko, berrogeialdiak kentzeko... Informazio hori ondoren ere ez da eman, gaur arte.

#SOSPRESOAKCOVID-19

Presoak ez dituzte txertatu adinaren edo egoera pertsonalaren arabera, gainerako biztanleak bezala, taldeztat hartu baitira, banakako osasun egoera aintzat hartu gabe.

Presoei Janssen txertoa jarri zaie, nahiz eta aholkaturik ez egon 50 urtetik beherakoentzat (presoen erdiak baino gehiago 50 urtetik beherakoak dira).

3. BESTE ESPETXE BATZUETAKO EGOERA

Hilabete hauetan ikusarazi eta salatu izan dugunez, EINaren datu ofizialen arabera, 2020ko otsailean 8.000 preso baino gehiago ari ziren zigorra betetzen beren errotze tokietatik kanpo. Horiei gehitu behar zaizkie beste 7.600 preso, Idazkaritza Nagusiak ez baitaki non dauden erroturik. Zigorra errotze tokitik kanpo betetzen ari diren presoen kopurua hau da, autonomia erkidegoen arabera zehaztuta:

CCAA	P. PRESAS FUERA
NAVARRA	184
GALICIA	234
CATALUÑA	564
ARAGON	136
ANDALUCIA	1093
ASTURIAS	275
CANTABRIA	147
PAIS VASCO	685
CASTILLA Y LEON	272
MADRID	1105
LA RIOJA	60
EXTREMADURA	241
CASTILLA LA MANCHA	755
VALENCIA	1463
MURCIA	434
BALEARES	182
CANARIAS	313
CEUTA	128
MELILLA	122
SIN DETERMINAR	7642

#SOSPRESOAKCOVID-19

Nafarroaren kasuan 184 preso daude, Nafarroakoak edo Nafarroan erroturik daudenak, zigorra Foru Komunitatetik kanpo betetzen ari direnak.

Guztira, 41 espetxetan eta gizarteratze zentro batean (CIS) daude. Idazkaritza Nagusiak bere web orrian ematen dituen datuen arabera, bisean biseko komunikazioen egoera hau da orain:

12 espetxetan ez dago bisean biseko komunikaziorik: Alicante II (Villena), Burgos, El Dueso, Gipuzkoa (Martutene), Logroño, Madrid VII (Estremera), Ocaña II, Segovia, Zaragoza (Zuera), Zaragoza (Daroca), Madrid VI (Aranjuez) eta Alacanteko espetxe-psiatrikoa.

29 espetxetan badaude bisean biseko komunikazioak (intimoak eta familiakoak edo bi motetako bat): Almería, Ávila, Badajoz, Castellón I, Castellón II, Ceuta, Ciudad Real (Herrera), Córdoba, Granada (Albolote), Jaén, León, Lugo (Monterroso), Madrid III (Valdemoro), Mallorca, Murcia II, Palencia (La Moraleja), Salamanca (Topas), Sevilla II, Soria, Texeiro, Araba – Zaballa, Asturias, Ciudad Real (Alcazar de San Juan), Huelva, Ibiza, Madrid IV-Navalcarnero, Madrid V - Soto del Real, Ocaña I eta Puerto I.

Ezin izan dugu jakin zein den egoera Valentziako Antoni Asunción Hernández gizarteratze zentroan.

5. ONDORIOAK

- Espetxeetako Idazkaritza Nagusiak oraindik ere Covid-19aren kudeaketan erabiltzen dituen neurriek presoek eskubideak urratzen segitzen dute: osasun arreta ez da egokia, kanpokoarekiko harremana mugatuta dago, tarteka murrizten dira jarduerak eta tailerrak, bakartzea osasun neurri gisa erabiltzen da (espetxe arloko legerian salbuespeneko neurria da).
- Eskatzen dugu presoek eskubideak errespetatu daitezela Covid-19aren kudeaketan oraingo fasean ere. Horretarako, beharrezkoa da:
 - o Presoak espetxetik ateratzea, osasunari lehentasuna emanez, presoek eskubideak errespetatzeko neurri eraginkorrena den aldetik.

#SOSPRESOAKCOVID-19

- Berehala berrezartzea bisean biseko komunikazioak Iruñeko espetxean.
- Berehala kentzea nahitaez bete beharreko bakartzealdiak espetxera itzultzean baimenetatik edo beste edozein diligentziazatik, bai eta hasierako sarreretan.
- Bermatzea ez daitezela presoak diskriminatu txertoa hartzea edo ez hartzea erabakitzeagatik, jarduerak egin ahal izateko, bisean bisekoak izateko, berrogeialdiak kentzeko ...
- Iruñeko espetxera ekarri behar dira Iruñeko espetxean zigorra betetzen ari ez diren Nafarroako presoak edo Nafarroan erroterik daudenak, hala eskatzen badute.